

• ASTERO GAIA •

Talibanak

Quetta hirian, Omar mularen itzalpean

“Talibanistango kapitala” deitu ohi diote gerrek eta lurrikarek behin eta berriz suntsitutako hiri honi. Asia erdialdeko herri anitzen jomuga ez ezik, talibanek Pakistanen duten gotorlekurik handiena da Quetta.

Testua eta argazkiak:

KARLOS ZURUTUZA





NEKEZ EZAGUTUKO GENUKE kalean goazela Quettan bizi den gizonik ospetsuena. Gutxik dakite bere benetako izena eta, bestetik, argazki bat besterik ez omen zaio atera bizitzan zehar. Gerlari baten istorioa dugu honako hau. Errusiarrek Afganistandik alde egin zutenean, kaosa nagusitu edo, hobeto esanda, areagotu zen Asia erdialdeko herrialdean. Afganiar herria mendebaldeko potentziek armatutako jauntxoaren esku gelditu zen: lapurretak, bortxaketak, sarraskiak... Beti zigorrik gabe gelditzen ziren basakeriak.

Zapaldutako herritar askok apaiz-soldadu batengana jotzen zuten, laguntza eske. Fededun sutsua eta gerlari trebea bezain justua zela zioten. Lehenagoko jauntxo anker haiek bere tankeen kanoietatik urkatzen zituen apaiz-soldadu hark, eta musutruk. Omar (hala zuen izengoitia) agintaria garaiezina omen zen, eta ez-hilkorrak bere soldaduak. Mitoa lagun, Singesar, Kandahar, Gazni, Jalalabad eta Kabul elkarren atzetik garaitu zituen, eta apenas tirorik botata. Omar izenak sortzen zuen beldur hutsak ia arerio oro uxatzen zuen. Jarraitzaileek “fedearen komandantea” deitzen zioten.

Aipatu erretratu bakar hura Kabulen egin zioten, oso egun seinalatuan. Omarrek Mahoma profetaren mantua bizkarrean jarri eta

Quetta kulturantza izan daiteke, baina inolaz ere elkarbizitzaren eredu. Taldeen arteko tiroketak, bazarreko postuetako eztandak, hilketa selektiboak, bahiketak...

agintari gorentzat jo zuen bere burua, Afganistangoa, bai eta munduko musulman guztien ere. Bin Laden lagun min bilakatu zen, eta saudiarabiarraren alabetako bat hartu zuen laugarren emazte Omarrek.

“Fedearen komandanteak” Afganistanen benetako estatu musulman bat eraikitzea zuen amets: “Jainkoaren herrialdea Lurrean”. Hartu beharreko neurrien artean, izakien errepresentazio oro ezabatzea zegoen. 1379an erori ziren Bamiyango Buda erraldoi haiek.

Handik sei hilabetera, baina 2001. urtean, beste bi, Manhattanen. Washingtonek Bin Laden entregatzeko eskatu zion Omarri. Apaiz-soldaduak zera erantzun zion: “Nire bizitzan, Afganistan erdiaren suntsipenaren lekuko izan naiz; Bin Laden entregatu baino, beste erdiaren txikizioa ikusteko prest nago”.

Zortzi urte eta hamaika mila hildako eta gero, gerrak ez du etenik. Bin Laden aske dago, eta Omar Quettan bizi omen da.

Koloretako itzalen hiriburuan

Teorian, Quettan eta Pakistan osoan eskuine-tik gidatzen da, Britainiar Inperioak garai batean agindu lege. Nolanahi, praktikan oso bestelakoa da trafikoaren garapena. Kamioiak, gurdiak, gainezka doazen autobus kolore-

tsuak, bizikletak, oinezkoak... Denak dira kaos “armoniko” baten zati eta eragile. Eta ezin ahaztu *rickshaw* izeneko hiru gurpileko taxiak. Rasulek horietako bat gidatzen du egunez, eta askotan, bertan egin behar izaten du lo gauzez. Kandaharretik duela lau urte iritsi zenetik, motogurdia izan du ogibide. Dioenez, Hamid Karzai eta Omar mula bere herri berekoak dira.

“Zaila da aurkitzen bertakorik Quettan; Afganistandik etorri gara gehienok”, dio gidari bizardunak, trafiko eroari eutsiz.

Arrazoi du. Quetta ofizialki Pakistango Balutxistango hiriburua bada ere, Quettan Rasul bezalako pastun etniakoak dira nagusi egun. Afganistango muga ordubetera baino ez dago, eta bi ordura Kandahar. Mugako hiriarren paradigma da Quetta, nahikoa da paseotxo bat bere bazarretik horretaz jabetzeko: balutxeak euren kaskete gorriekin; “chitral” izeneko txapel antzekoa daramaten tajikoak; uzbeikiar beltzaranak edota mongoliar itxurako hazarak... Eta talibanak, jakina. Beren durbante beltzak ere bazarreko mosaiko koloretsuaren zati dira.

Gizonez ari gara, noski, emakumeekin kalean topo egitea askoz ere zailagoa baita. Batzuk burka baten azpian antzeman daitezke, Sariah edota Jinnah hiribide nagusiak zeharkatzen dituzten mamu urdinen antzera. Sudurra urrezko uztaiek zulatutako ijitoek, ordea, axolagabe erakusten dituzte euren ilea nahiz beso biluziak.

Kamioiak, gurdiak,
gainezka doazen
autobus
koloretsuak,
bizikletak,
oinezkoak...
Beheko nahiz
aurreko argazkietan
ikus daitekeenez,
Quettan denak dira
kaos “armoniko”
baten zati eta
eragile.

Bai, Quetta kulturantza izan daiteke, baina inolaz ere elkarbizitzaren eredu. Talde ezberdinen arteko tiroketak, bazarreko postuetako eztandak, hilketa selektiboak eta bahiketak dira egunerokotasunaren taupadak. Eta, askotan, zurrumurru xume bat baino ez: “Lehergailuz zamatutako kamioi bat sartu da Quettan!”, entzuten da aldian behin. Halakoetan, Noordar hiribidea porlanezko blokez josten da, bertako gobernu eraikinak babestu nahian.

Gauzak honela, segurtasuna da negozio-rik handienetakoa Quettan. Ikusi besterik ez dago Akhtar Mengalen etxea babesten duen ejertzito pribatua. Ez da harritzekoa, bera baita BNP (Balutxe Alderdi Nazionalista) alderdiaren buru. Bestalde, askok diote Kabul seguruagoa dela Quetta baino.

“Normalean interes tribalak daude hilketa selektiboen atzean, baina denok dakigu zein den gatazka nagusia Quettan eta Balutxistan osoan”, dio Mengalek bere herrialdeko mapa bat atzean duela. “AEBek talibanen kontra emandako dirua nahiz armak gure kontra erabiltzen ditu Islamabadek”, kexu da agintari balutxea. Dioenez, hamar milaka familiak ihes egin behar izan dute euren herrixkak bonbardatuak izan ondoren.

Eta Omar?

“Gauza jakina da Quettan dagoela. Baina guri ez bezala, berari ez diote ile bat ere ukituko zerbitzu sekretuek”, dio Mengalek,





Ezkerreko irudian, segurtasun neurriak kristau eliza baten sarreran. Eskuineko mendiez bestaldera dago Afganistan.

buruzagi talibanaren guardia pertsonala balutxez osatua dela gogoratuz aldi berean. Antza, munduko beste agintari asko bezala, Omar ere ez da fio bere ingurukoez.

Hein batean ulertzekoa da, Pakistanen era guztietako trikimaina eta maniobra ilunak baitira nagusi. Ezagunena, Islamabaden azpijokoa talibanak direla eta. Washington baretzearren, Pakistanek arabiar, uzbekiar edo txetxeniak jatorriko taliban bat entregatzen dio noiz edo noiz, baina inoiz ez bertako pastun bat. Haiek dira bertako zerbitzu sekretuen seme kuttunenak. Omarrena dugu, hain zuzen, horren adibiderik garbiena.

Erdibideko herria

“Pakistanek sortu zuen ‘munstro’ hau, amerikarren laguntzaz”, dio taliban mugimenduaz Enayatullah Khanek, ANP alderdiko buruzagi pastunak. Mengal bezala, ejertzito pribatu nahiz harresi garai batek babestutako etxean bizi da.

“Oso fenomeno berria da, duela hogeitaz urte inork ez zuen halakorik ezagutzen”, jarraitu du Khanek bere ingeles bikainaz. “Pakistan konturatu da berarentzat ere eraso erreal bilakatu dela, baina beranduegi da jada mugimendua akabatzeke”, dio Khanek, te-esnari azken zurruta eman ostean.

Baina Quettan badira Omar mularen jarraitzaileak. Eta ez dira gutxi.

“Maite dut Omar, munduko gizonik fededunena eta ausartena da”, dio Balutxistango Unibertsitateko ikasle bizardun honek. Hizbula du izena eta Quettan jaioa dela dio. Antza, Hizbularen gurasoak Peshawar-etik,

Washington baretzearren, Pakistanek arabiar, uzbekiar eta txetxeniak jatorriko taliban bat entregatzen dio noiz edo noiz, baina inoiz ez bertako pastun bat. Haiek dira bertako zerbitzu sekretuen seme kuttunak

NWFP (ipar mendebaldeko mugako probintzia) eskualdetik etorri ziren duela 25 urte. Joan zen ekainean, Islamabadek berebiziko operazio militarra burutu zuen bertan, Barack Obamaren babes nahiz presiopean. Agintari estatubatuarrak argi asko daki Afganistan menderatu ahal izateko Pakistan ere kontrolatu behar duela.

“Pastunok genozidio hutsa jasaten ari gara”, kexu da Hizbula. Antzera diote bertako balutxeek edota Afganistango hazarrek, besteak beste. Ziurrenik denek arrazoi izango dute.

Siad hazara da eta Kunduz-etik (Afganistan) etorri zen duela hamar urte. Berak eta bere etniakide askok alde egin behar izan zuten, hain zen ankerra eurenganako talibanen presioa. Hazaretaz esaten da

Genghis Khanen ejertzitoaren ondorengoak direla, hortik euren sortaldeko ezaugarriak. “Ezohiko” itxura batetik, eta musulman xiita konfesioa bestetik, sekulako bortizkeria jasan behar izan dute beti euren bizilagun sunitengandik.

“Sobietar inbasioaren garaian, amerikarrek ez zuten eskrupulorik izan era guztietako borraroei laguntzeko: arma nahiz droga trafikanteak, talibanak, Dostum uzbekiar komandantea bezalako hiltzaileak... Errusiarrak garaitu eta jende

haren eskuetan utzi gintuzten gero”, damu da Siad. “Egoera hartan, Omarrek erraz lortu zuen jendearen babesa”, gaineratu du, ordenagailuko pantailan duen Kunduzeko argazkiari begira.

Siaden ziberkafe alboko jatetxe ttipia Bahdir izeneko tajik batena da. Bera ere muga-

Energia-hodien mendeko geopolitika

Gauza jakina da Persiako Golkoko nahiz Asia erdialdeko politika, energia baliabideekin erabat loturik dagoela. Izan ere, aditu askok diote AEBek Afganistan 2001ean inbaditzeko arrazoi nagusia Kaspioko erregai energetikoetara sarrera izatea izan zela. Horretarako TAPI (Turkmenistan-Afganistan-Pakistan-India) hodia dugu proiekturik anbiziosoena. Haren bidez Washingtonek bere erregaiei horniketa bermatuko luke, Iran eta Errusiatik igaro gabe.

Dena den, ez dirudi erraza azpiegitura hau gauzatzek. Batetik, Afganistango egoera gorria; herrialdea inbaditu eta zortzi urtera herrialdea kontrolatu ez ezik, talibanen kontrako gerra galtzen ari direla onartu dute Koalizioko hainbat jeneralek. Bestetik IPI (Iran-Pakistan-India) hodi proiektua dago,

TAPIren aurkaririk handiena izan daitekeena. Gas-hodi honi "Bakearen hodia" ere deitu diote eta adituek askoz ere bideragarriagoa ikusten dute TAPI baino. Nolanahi, TKT dugu "hodi guztien ama", Turkmenistandik Txinaraingo joango den hodi erraldoia. Bere 7.000 kilometroko luzeran, Kazajistan alderik alde zeharkatuko luke. Antza, Mendebaldeko potentziak uste baino gehiago galtzen ari dira Afganistanen.



ren beste aldetik etorri zen duela ez asko.

"Ba al zenekien 'kaki' hitzak 'hautsa' esan nahi duela darieraz, gure hizkuntzan?", dio Bahdirrek irribarretsu, haragizko otordu baten gainean. "Hautsa besterik ez dago Afganistanen. Zer dauka herrialde honek berau menderatu nahi eta ezin izan duten hamaika inperioentzat?", galdetu dio bere buruari handik iritsitako tajikoak.

Bahdirrek jakin badaki galdera horren erantzuna ez dagoela Afganistanen bertan,

alboko herrialdeetan baizik. Britainiar eta errusiar inperioen artean egon zen Afganistan erreserba energetikoen bidegurutzetan erdian dago egun. Hori gutxi ez, eta lau potentzia nuklearren (Errusia, Txina, Pakistan eta India) mugakide da asiar herrialdea. Horixe da, agian, afganiarren zoritxarreko patuaren erroa: erdian egotea.

Eta Omar? Quettan al dago?

"Zer axola dio orain? Jakin badakit ez naitela inoiz etxera bueltatuko", tajikoak.



● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiren laguntzari esker urterik urte euskaraz dago ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskaraz eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure artean euskaraz

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Euskararen Foruak



Mahmud Khan Achakzai, PMA pastun alderdiko buruzagia

«Afganistango subiranotasuna errespetatu ezean, mundu osoa arriskuan egongo da»



Giza Eskubideen aldeko borrokalaria eta abertzale sutsua dugu Pakhtunkhwa Milli Awami alderdiko buruzagia. Mahmud Khan Achakzaik pastun herriari ukatutako eskubideak aldarrikatzen ditu. Horretaz eta Afganistango egungo egoeraz mintzo da ARGIArekin Quettako bere etxean.

Zein da pastunen egoera Pakistanen?

Punjabiek inperio gisa menderatutako estatua da Pakistan. Gauzak honela, pastunak, balutxeak, sindiak eta gainontzeko etniakoak bigarren mailako hiritarrak baino ez gara. Oso esanguratsua da gure eskualdearen izena oraindik NWFP (Ipar mendebaldeko mugako probintzia) izatea. Britainiarrek utzitako arrasto koloniala besterik ez da hau. Pakistan sortu zenetik 60 urte pasa badira ere, Islamabadek ez du oraindik

Pukhtuanwa (Pastunistan) izena onartu.

Mendebaldean ohiko joera da pastun herria talibanekin identifikatzea. Zer deritzozu?

Berebiziko amorrua sortzen dit ekuazio horrek. Egia da taliban fenomenoak pastunak nagusi ziren eskualdean sortu zela, baina egon badaude Uzbekistan, Tajikistan edota beste herrietatik etorritako talibanak. Pastunak 50 milioi inguru gara eta horietatik, talibanen kopurua nekez iristen da %1era.

Areago, pastun herria Asia erdialdeko herririk seglarrena da, nire ustez. Herodotok, Marko Polok eta historiako makina bat kronistek aipatu dute gure herriaren ohiko tolerantzia. Pashtunwali gure jokalege tradizionala Islamaren aurretikoa da eta talibanak

giza-antolaketa horretatik erabat kanpo daude.

Nola sortu zen, zure ustez, talibanen fenomenoak?

Funtsean, talibanak AEBek, Pakistanek eta Saudi Arabiak sortu zituzten sobietar okupazioaren garaian. Batetik, Islamabadek babesa ematen jarraitzen du, eta bestetik, gure herria ere manipulatu du, Afganistanen gobernu subirano bat egoteak sekulako zirrara sortzen baitio. Zoritxarrez, Pakistanek ez du talibanen kontra erreakzionatu bere meskita nahiz gobernuko eraikinak eztanda egin arte. Islamabadek operazio militar bat burutu du berriki baina gauza jakina da Islamabadek sekulako dirutza jasotzen duela honelako ekintza militarrek burutzeagatik; alegia, dirua nahikoa aitzakia dute halakorik egiteko. Edonola, gaur egun bide militarra besterik ez dago talibanekin bukatzeko.

Zer iritzi duzu Afganistango hauteskundeek?

Denok dakigu nekez bidera daitezkeela hauteskunde gardenak gerrak zantututako herrialde batean. Oztopoak oztopo, Karzai da herrialdea aurrerantz eramanez bakar. Bere ikuspegia errealista da, pragmatikoa, ederki asko baitaki kanpoko laguntza ezinbestekoa izango dela herrialdea aurrera ateratzeko.

Baina horrela ez al dago AEBen morroi bilakatzeko arriskurik?

Historian zehar, pastunok askatasuna gauza guztien gainetik maite dugula erakutsi dugu. Ezinbestekoa da Afganistango subiranotasuna errespetatzea. Hala ez bada, Afganistan eta Pakistan mundu mailako guda zela bilakatu dira, eta mundu osoa egongo da arriskuan. ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, erreportajearen diaporama.